

KALITATE AGENTZIEK GAUR EGUN ONESPEN AKADEMIKOAREN KALITATEAREN KANPO-ZIURTAPENERAKO ERABILTZEN DITUZTEN PRAKTIKAK (CURRENT PRACTICES ON EXTERNAL RECOGNITION AMONG QUALITY ASSURANCE AGENCIES)

Formakuntzaren, ikasketa-aldien eta aurretiazko ikaskuntzaren onespren egokia – txosten honetan “helburu akademikoetarako onspena” edo “onespen akademikoa” deituko duguna – bere sorreratik Boloniako prozesuak izan duen helburu nagusietako bat izan da. Lisboako Onespenari buruzko Hitzarmenean (Lisbon Recognition Convention, LRC), elkarrekiko oinarri eragileak finkatu ziren, herrialde partehartzaileentzat lotesle direnak.

Dena den, 2015eko Bolonia planaren ezarpenaren txostenaren arabera, bere sorreratik bi hamarkada igarota, Lisboako Onespenari buruzko Hitzarmenean jasotako akordioen ezarpena oraindik erronka handia da. Konkretuki, ikasleek izugarritzko arazoak dituzte oraindik mugikortasuna kontuekin atzerrian edo atzerriko erakunde batean lortutako titulu, diploma, ziurtagiri eta ikasketa-epealdien onspren eskasa dela eta. Lurraldeen arabera egoera ezberdina bada ere, arau esparru eta erakunde ezberdinak direlako, txosten askok egiaztatzen dute Europan dagoen unibertsitate mailako onspren akademikoa goi-mailako erakundeen esku dagoela. Izan ere, goi-mailako erakundeak autonomoak izatea eta hitzarmena sinatu zuten lurraldeek erakundeak Lisboako Onespenari buruzko Hitzarmenari lotzeko mugak izatea oztopo nabarmen bezala har daitezke.

Bolonia planaren ezarpenaren txostenean jasotzen den moduan, arazo honi aurre egin zaio kalitatea ziurtatzeko hobekuntzaren ikuspegitik eta bereziki Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Esparruan (EGHE) kalitatea ziurtatzeko irizpide eta jarraibideen (ESG) berrikuspenari ekin zitzaion. 2015eko ESG irizpide eta jarraibideek, bere 1.4 atalean, onspren akademikoa goi-mailako hezkuntza erakundeen kalitatearen barne-ziurtaginerako (Internal Quality Assurance, IQA) sistemaren osagarri ezinbestekotzat hartzen dute.

Goi-mailako hezkuntzan, kualifikazioen ikasketa-aldien eta aurretiazko ikaskuntzaren onspena, ikaskuntza ez formalaren eta informalaren onspena barne, funtsezko osagaiak dira ikasleek ikasketetan aurrera egingo dutela bermatzeko, eta era berean mugikortasuna errazteko balio dute. Onspren-prozedurak egokiak izateko

- onspren-praktika instituzionalak kualifikazioen onspenari buruzko Lisboako Konbentzioaren printzipioekin bat etorri behar du;*
- lankidetzaren egokia ezarri behar da beste erakunde batzuekin, kalitatea ziurtatzeko agentziekin eta ENIC/NARICen zentro nazionalarekin, herri osoan onspren koherente bat bermatzeko xedez.*

2015ean ESG irizpide eta jarraibideen egokitzapenaren ondoren, agentziek bere kalitatearen kanpo-ziurtapen (External Quality Assurance, EQA) prozesuetan onespenera akademikoari buruzko gaiak adierazi behar dituztelako ardura dutela argi gelditu da. ENQAK erakundeek dituzten onspen praktiken hobekuntzan kalitate agentzien oraingo eta etorkizuneko paperaren azterketa hartu du bere kargu. Era berean, helburu hau betetzeko agentziei zuzendutako laguntza-estrategien garapena sustatuko du.

Kalitatea ziurtatzea eta onspenari buruzko ENQAREN lan-taldea

ENQAREN 2016-2020 plan estrategikoari jarraiki, “Goi-mailako hezkuntzaren europar esparrua non ikasleek kalitate handiko hezkuntzaren sarbidea ziurtatuta dute eta mundu osoan onartzen diren titulazioak lor ditzakete” aurreikusten duena, eta 2015eko ESG irizpide eta jarraibideek kalitatea ziurtatzeko sektorean ezarritako ardura berriak kontuan hartuz, ENQAK kalitatea ziurtatzea eta onspenari buruzko lan-taldea sortu zuen 2015eko uztailan.

Lan-taldea sortu zenetik bi urteetan bere jarduerak ENQAKO kide diren agentzien onspen akademikoaren kalitatearen kanpo-ziurtapenerako erabiltzen dituzten praktikak zehaztean jarri dute arreta. Horrela aurkitutako erronkak eta garatutako praktika onak identifikatuz, eta lan-taldeko ikerketa-emaitzak zabaltzeko estrategia garatuz.

Lan-taldeko kideak:

Teresa Sánchez Chaparro, CTI, Frantzia (lan-taldeko burua)

Carme Edo Ros, AQU Catalunya, Espainia

Eva Fernández de Labastida, Unibasq, Espainia

Marie-Jo Goedert, CTI, Frantzia

Kyrre Goksøyr, NOKUT, Norvegia

Esther Huertas, AQU Catalunya, Espainia

Maria Kelo, ENQA, Europa

Niamh Lenehan, QQI, Irlanda

Rafael Llavori de Micheo, ANECA, Espainia

Aurelija Valeikienė, SKVC, Lituania

Lan-talde honek ENQA idazkaritzako Lindsey Kerber-en koordinazio pean lan egin du.

Metodologia

Lan-taldeak sortu zenetik bi urteetan hurrengo jarduerak garatu ditu:

- European Onespen Esparruari eta bere ezarpenarekin lotutako erronkei (Ikus 5. atala) buruzko argitalpen eta ekimen nabarmenak aukeratu eta kontuan hartu (Lantaldearen eskumen barruan nabarmenak izan zitezkeen proiektuak Europako Batasunak ordainduta);
- 2016ko irailean kalitate agentziei zuzendutako inkesta egin. Emaitzak eta ondorioak txosten honen 2. atalean aurkezten dira. Inkestaren testu osoa I. eranskinean dago; eta
- Onespenaren eta kalitatearen ziurtapenaren arteko loturak aztertzeko (kontsulta egiteko eta informazioa zabaltzeko) ekitaldia antolatu antzemandako hiru interes-taldeei zuzenduta: kalitate agentziak, goi-mailako hezkuntza erakundeak eta ENIC-NARIC zentroak. Ekitaldia, QQI-k (Quality and Qualifications Ireland, erakunde honek Irlandako kalitate agentzia eta ENIC-NARIC zentroa batzen du) antolatuta, “Kalitatearen ziurtapena eta onespen akademikoaren arteko sinergiak aztertuz” (“Exploring synergies between quality assurance and qualifications recognition”) izenarekin Dublinen izan zen 2017ko ekainaren 1ean eta 2an. Hirugarren atalean ondorioak biltzen dira. Programa osoa eta parte-hartzaileen zerrenda txostenaren 2. eta 3. eranskinetan aurki daitezke.

Dokumentu osoa irakur dezakezu [hemen](#).